

## **Montehermoso kulturuneak Proiektu Artistikoak deialdiaren barruan hiriko sortzaileei 2015ean eskainitako lehen erakusketak hartuko ditu**

Kultura, Euskara eta Kirol zinegotzi Iñaki Prusillak eta Rubén Ángel Arias eta Eduardo Alsasua sortzaileek aurkeztu dituzte gaur goizean erakusketak: “Penobscot 44/68” eta “Ezezagunak. <arazo birala: ikusezintasuna zeure ingurunean bertan>”. Proiektu artistikoak diruz laguntzeko hirugarren deialdian hautatutako bi proiektuen emaitza jasotzen da erakusketetan; hain zuzen ere, proiektuen produkzioa eta garapena bultzatuz hiriko artisten lana ezagutarazteko xedea du deialdiak.

“Kultura garatzeak Udalaren ardatzetako bat izan behar du, bai eragile bai aliatu gisa, hurbiltasun eta bertako sorkuntzarekiko sostengu ikuspuntu batetik eta artearen edozein alorretan talentua duenari lagunduz. Honelako programek bistaratze hori ahalbidetzen dute, kulturaren sektoreak berak eskatzen duen lankidetzara, eta gainera gasteiztar orengan dute eragina, hirian sortzen dena bertatik bertara ezagutzeko aukera ematen baitu”, nabarmendu du Prusillak.

2015eko Proiektu Artistikoak deialdiak 22 eskabide jaso zituen, eta zazpi proiektu hautatu ziren; horien artean banatu dira aurtengo edizioari esleitutako 12.000 euroak, lortutako puntuazioaren arabera. Proiektua garatzeko eta gastu orokorreari aurre egiteko zenbateko horrez gain, Montehermoso kulturuneak lanak jendaurrean erakusteko espazioak eta baliabide teknikoak eskaintzen ditu.

Proiektu hautatuak Montehermoso kulturunearen urteko programazioaren barruan aurkezten dira, azken lauhilekoan. Urte osoan garatutako berariazko lanak dira, eta Gasteizen egiten diren praktika artistikoen ikuspegi anitza eskaintzen digute.

Irailaren 10etik (osteguna) urriaren 12ra arte ikusi ahalko dira hautatutako proiektuen arteko lehen bi erakusketak.

### **“Penobscot 44/68”, Rubén Ángel Ariasena**

Egileak seihileko bat eman zuen Mainen (AEB), Literatura irakasle, eta bertako paisaia islatzen duten 23 argazkik osatzen dute erakusketa. Irudi errepikakorrek dira, leku hartako monotonía tematia, mantsotasuna eta bakartzea direla kausa zalantzarik gabe, eta argazkien bidez paisaia kontenplazio objektu bihurtzen da.

“Erakusketa honetako irudiak, beste ezer baino lehen horixe dira: paisaiaren markak, Mainen izan nuen esperientzia kontenplaziozko zatiki elementaletara murriztuta. Murrizketa bikoiztuta, hautatutako argazki guztiak Penobscot ibaiaren inguruetan ateratakoak direlako, hain zuzen ere Oronon parean, 44° Ipar /68° Mendebalde koordinatuek osatutako

koadrantearen ipar-iparreko aldean”, azaldu du Rubén Ángel Ariasek. Rubén Ángel Arias (Zamora, 1978). Gasteizen bizi eta lan egiten du.

**“Ezezagunak. <arazo birala: ikusezintasuna zeure ingurunean bertan>, Eduardo Alsasuarena, AR-LA kolektiboaren izenean**

“AR-LA kolektiboak tokiko artisten artean gero eta zabalduago dagoen arazoari aurre egin eta agerian jartzeko zeregina gure gain hartu nahi izan du: ikusezintasuna gure ingurunean bertan, arte alor guztiei eragiten dien arazo birala. Jakitun gara gauzek bere horretan jarraitzen badute ikusezintasun iraunkorrean erortzeko arriskua dugula”, azaldu du Eduardo Alsasuak.

AR-LA taldeak beste artista batzuk gonbidatu ditu sarean parte hartzera. Sare hori taldeaz haratago hedatu nahi dute, bertako artistak une honetan egiten ari diren lana agerian jartzeko. Horretarako, AR-LA kolektiboak performance birtual bat proposatzen du, arazo bera duten artistek haiekin bat egin dezaten. Beraz, parte hartzeko ideia da, sarean hedatuz artista lokalak elkartu eta bistaratze kuota handiagoak lortu ditzaten. Artista hauek osatzen dute AR-LA Kolektiboa: Ana Díaz de Espada, José Cos, Beatriz Abascal, Ander Gómez San Jorge, Miguel Ángel Salgado eta Eduardo Alsasua; sei artista gasteiztar eta arabar, lotura eta prestakuntza komunak dituztenak.

## Montehermoso acoge las primeras exposiciones de 2015 de los Proyectos Artísticos de creadores locales

El concejal de Cultura, Euskera y Deportes, Iñaki Prusilla y los creadores locales Rubén Ángel Arias y Eduardo Alsasua han presentado esta mañana en Montehermoso las exposiciones “Penobscot 44/68” y “Desconocid@s. <unproblema viral: la invisibilidad en tu propio entorno>”. Estas muestras son el resultado de dos de los proyectos seleccionados en la tercera convocatoria de Proyectos Artísticos cuyo objetivo es hacer visible el trabajo de las y los artistas locales mediante el apoyo en la producción y difusión de sus proyectos.

“El desarrollo cultural desde un enfoque de proximidad y de apoyo a la creación local y al apoyo del talento en cualquier disciplina artística debe ser uno de los ejes del Ayuntamiento, como motor y aliado. Programas como éste favorece esa visibilización, esa colaboración necesaria que demanda el propio sector cultural y que repercute, además, en la población gasteiztarra en general, que tiene así la posibilidad de conocer de primera mano la actividad creativa que se genera en su ciudad”, ha destacado Iñaki Prusilla.

La convocatoria de Proyectos Artísticos 2015 recibió 22 solicitudes, siendo seleccionados siete proyectos, entre los cuales se ha distribuido, en función de la puntuación alcanzada, los 12.000 euros asignados a esta edición. Además de esta cuantía económica para la producción y gastos generales del proyecto, el Centro Cultural Montehermoso aporta los espacios y recursos técnicos necesarios para su presentación pública

Los proyectos seleccionados se presentan en el Centro Cultural Montehermoso, formando parte de la programación del centro, en el último cuatrimestre del año. Son trabajos específicos desarrollados a lo largo del año y que ofrecen una visión diversificada de las prácticas artísticas en Vitoria-Gasteiz.

Desde hoy jueves 10 de septiembre y hasta el 12 de octubre el centro cultural acogerá las dos exposiciones de los dos primeros artistas seleccionados.

### “Penobscot 44/68” de Rubén Ángel Arias

La exposición consta de 23 fotografías que reflejan el paisaje que acoge al autor en su estancia durante un semestre como profesor de literatura en Maine (EE.UU.). Imágenes recurrentes, debido, sin duda, a la monotonía machacona del lugar, a su lentitud y aislamiento y a través de las el paisaje se convierte en objeto de contemplación.

“Las imágenes de esta exposición deberían considerarse, antes que nada, eso: marcas del paisaje, mi experiencia en Maine reducida a sus partículas contemplativas elementales. Doblemente reducida, pues todas las fotografías seleccionadas las hice en los alrededores del Penobscot a su paso por Orono, en la zona más septentrional del cuadrante formado por las

coordenadas 44° Norte / 68° Oeste”, explica Rubén Ángel Arias. Rubén Ángel Arias (Zamora, 1978). Vive y trabaja en Vitoria-Gasteiz,

**“Desconocid@s. <unproblema viral: la invisibilidad en tu propio entorno> de Eduardo Alsasua en representación del colectivo AR-LA**

“Desde el colectivo AR-LA tratamos de afrontar y asumir la tarea de despertar y desvelar una problemática cada vez más extendida entre las artistas y los artistas locales: la invisibilidad en nuestro propio entorno una problemática viral que afecta a todos los ámbitos artísticos. Somos conscientes de que tal y como van la cosas corremos el peligro de caer en una in-visualización permanente”, explica Eduardo Alsasua.

El colectivo AR-LA ha presentado al resto de artistas esta invitación a la participación en red. Una red, que trata de extender más allá de su colectivo, para desvelar el trabajo que están desarrollando los y las artistas locales en éste momento Por ello AR-LA ha propuesto esta performance virtual en la que trata de que les acompañen un número importante de artistas locales, que comparten esta misma problemática: la invisibilidad en nuestro propio entorno. Se trata, por lo tanto, de una idea de participación, que extendiéndose en red, intenta aunar a los y las artistas locales para obtener mayores cotas de visualización. AR-LA Kolektiboa esta formado por los y las artistas: Ana Díaz de Espada, José Cos, Beatriz Abascal, Ander Gómez San Jorge, Miguel Ángel Salgado y Eduardo Alsasua; seis artistas vitorian@s y alaves@s, con ciertos vínculos y ámbitos formativos comunes.